



BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
Justizia Sailburuordetza  
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES  
Viceconsejería de Justicia  
Dirección de la Administración de Justicia

**JUSTIZIA                      ADMINISTRAZIOKO  
ZUZENDARITZAREN JARRAIBIDEA, EAEko  
EGOITZA JUDIZIALETARA ETORRI OHI DIREN  
KANPOKO LAGUNTAILEEN SARBIDEARI  
BURUZKOA**

Hainbat kolektibok eskaera egin dute Justizia Auzitegietako egoitzetan sartu ahal izateko, baina publikoari oro har egiten zaion ohiko kontrola igaro beharrik gabe. Eskaera horri erantzun nahirik, prozedura hau ezartzen da eraikin judizialean sartu ahal izateko, eta nahitaez bete beharko dute jardunean diharduten letraduek, prokuradoreek eta lan-harremanetako gradudunek:

1.- Jarduneko letradu, prokuradore eta lan-harremanetako gradudunak sartu ahal izango dira eraikin judizialean, dela funtzionarioentzat eta baimendutakoentzat xedatutako bidetik, dela publikoa oro har sartzen den bidetik, ezarritako segurtasun-kontrola (arkua eta eskanerra) igarotzeko betebeharrik gabe; horretarako, modu frogagarrian erakutsi beharko diote beren lanbideko identifikazio agiri edo txartel pertsonala kontrol-eginkizunetan ari den ertzainari edo segurtasun-zaintzaileari.

2.- Legelari, prokuradore edo lan-harremanetako gradudunarekin datorren lagunak nahitaez igaro beharko du ezarritako segurtasun-kontrola; horretarako, publikoa oro har sartzen den bidetik sartu beharko du.

3.- Ahaztuta edo galdua, lanbide-

**INSTRUCCIÓN DE LA DIRECCIÓN DE LA  
ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA SOBRE EL  
ACCESO DE LAS PERSONAS QUE COLABORAN  
HABITUALMENTE EN LAS SEDES JUDICIALES  
DE LA CAE**

En atención a la petición formulada por diferentes colectivos, en el sentido de poder acceder a las Sedes de los Tribunales de Justicia, sin necesidad de someterse al control ordinario previsto para el público en general, una vez atendida, se establece el siguiente procedimiento de acceso a los Edificios Judiciales, resultando de obligado cumplimiento por parte de los Letrados, Procuradores y Graduados Sociales en ejercicio:

1.- Los Letrados, Procuradores y Graduados Sociales en ejercicio accederán a los Edificios Judiciales, bien por la zona habilitada al efecto para funcionarios y personas autorizadas o bien por el acceso que lo hace el público en general, no estando obligados a someterse al control de seguridad establecido (arco y scanner), para lo cual deberán mostrar fehacientemente su carnet o tarjeta de identificación profesional personal al Agente de la Ertzaintza o Vigilante de Seguridad que se encuentre en funciones de control.

2.- Cualquier persona que acompañe al Letrado, Procurador o Graduado Social deberá someterse al control de seguridad establecido, para lo cual deberá acceder al Palacio de Justicia por donde lo hace el público en general.

3.- Si por olvido o extravío, la persona no porta



identifikazioa aldean eraman ezean, ezarritako segurtasun-kontrola igaro beharko du.

4.- Edonola ere, espresuki debekatuta dago justizia-jauregietan sartzea baldin eta aldean armarik eramaten bada.

5.- Lanbideko identifikazioarekin batera, pertsona berbera identifikatzen duen NANA eraman beharko da aldean.

6.- Ausaz eskatu ahal izango da NANA, letradu, prokuradore edo lan-harremanetako graduduna sartzeko unean, haren lanbideko dokumentazioa erkatu eta egiaztatzeko asmoz.

7.- Justizia-jauregietara sartzean beren dokumentazio profesionala gaizki erabiliz gero sor litezkeen erantzukizunak beren gain hartuko dituzte profesionalak.

8.- Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzaren mendeko segurtasun-arduradunari informatikoki eta aldizka eman beharko zaio jarduneko profesionalen zerrenda eguneratua.

9.- Irizpide berbera aplikatuko zaie administrazioen ordezkartzan diharduten letraduei ere. Kasu horretako identifikazioa kasuan kasuko administrazioaren berezkoa erabiliz egin beharko da, NANA ere erakutsiz.

10.- Instrukzio honek indargabeturik uzten du 2013ko martxoaren 22ko hura.

su identificación profesional, deberá someterse al control de seguridad establecido.

4.- De cualquier forma, está expresamente prohibido acceder a los Palacios de Justicia portando armas.

5.- Junto con la documentación profesional deberá portar su DNI que obviamente identifica a la persona.

6.- De forma aleatoria y en el momento de acceder el Letrado, Procurador o Graduado Social, se podrá exigir al Abogado su DNI, al objeto de cotejar y verificar su documentación profesional.

7.- Los profesionales asumirán las responsabilidades que se deriven por una mala utilización de su documentación profesional en el momento de acceder a los Palacios de Justicia.

8.- Se deberá facilitar informática y periódicamente un listado actualizado de los profesionales en ejercicio al Responsable de Seguridad dependiente de la Viceconsejería de Justicia del Gobierno Vasco.

9.- El mismo criterio será aplicable a los letrados representantes de las Administraciones. En este caso su identificación deberá realizarse con la propia de la Administración de referencia junto con la exhibición de su DNI.

10.- Esta instrucción deroga la de fecha 22 de marzo de 2013.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 19a

Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2022



BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Fdo.: Jon Arturo Uriarte Unzu  
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA